

Feministas multadas con 6500€ por cortar puente en Bilbao en apoyo a víctima de violación grupal

BILBOKO GAZTE SARE FEMINISTA :: 15/02/2020

Volveríamos a hacerlo. Medidas que sacudan los cimientos de este sistema heteropatriarcal, capitalista y colonial que padecemos. Hasta entonces nos veremos en la calle.

COMUNICADO

Queremos dar importancia a esta comparecencia de hoy e informar acerca de lo ocurrido en torno a la acción, ya que no vemos que la situación haya cambiado y, por lo tanto, nos corresponde todavía mantenernos firmes ante esto. Además de los vergonzosos «consejos para evitar agresiones» de la Ertzaintza anteriormente citados, los agentes presentes en el lugar de la acción tuvieron otras actitudes inadecuadas. Entre otras cosas, permitieron que varios peatones pasaran por debajo de la cuerda que sujetaba a las dos mujeres suspendidas sobre la ría aun habiendo sido notificados por parte de la Bilboko Gazte Sare Feminista de la peligrosidad de aquello; además, cuando una de estas dos mujeres fue subida al puente, se pusieron violentos contra una compañera que se acercó a ayudar y a intentar calmar la situación; cabría añadir que tuvieron comentarios tales como «Qué bien, a la siguiente por el puente de La Salve, que va a ser más divertido»; además de un largo etcétera. Así dimos por finalizada la iniciativa con una veintena de identificadas y 8 imputadas.

Estas Navidades, y no precisamente de parte de Mari Domingi, nos han llegado multas a 8 integrantes de la red. Aunque intentaron llevarlo por la vía penal, no se ha visto delito jurídico, por lo que la multa es administrativa. Pero si a esto le añadimos la Ley Mordaza, utilizada para hacer desaparecer las iniciativas políticas y ahogarnos, nos queda una multa de 6.500€ que nos parece inaceptable tanto políticamente como jurídicamente. Queremos también aprovechar esta ocasión para difundir la campaña que vamos a poner en marcha para hacer frente a las multas. La artista Marrabila nos ha regalado una ilustración para sacar bonos de ayuda, que en breve podrán adquirirse tanto en distintos puntos de los barrios como solicitándolos a las integrantes de la red.

Sin embargo, y para terminar, tenemos una cosa clara: **volveríamos a hacerlo**. Del mismo modo que en el día a día nos valemos de la autodefensa feminista frente a esta violencia estructural, seguimos pensando que es perfectamente legítimo que la respuesta se materialice a través de la acción directa, y así será hasta que la situación cambie de abajo hacia arriba. Nosotras seguimos insistiendo en la necesidad de medidas que vayan mucho más allá de las medidas paternalistas, medidas que sacudan los cimientos de este sistema heteropatriarcal, capitalista y colonial que padecemos. Hasta entonces nos veremos en la calle.

Gora borroka feminista eta gora bilboko gazte sare feminista!

EUSKERA

Gaurko honetan prentsa aurrean egiten dugu agerraldia Bilboko Gazte Sare Feministako kideok pasaden abuztuan egindako ekimenaren inguruan jasotako berriak luzatzeko. 2019ko abuztuaren 15ean Bilboko Udaletxeko zubia moztu genuen zenbait kideren artean. Hainbat ziren horretara bultzatu gintuzten arrazoiak; lehenik eta behin egun haietan Bilbon gertatutako talde-bortxaketa salatu eta erasotutako emakumeari gure babesea eskaintza; honi, eraso bat bera ere onartuko ez genuela aldarrikatzeko beharra genuela gehitu behar zaio; baina hau guztia gutxi balitz, honen aurrean Ertzaintzak erakutsitako jarrerari hortzak erakusteko ere burutu genuen ekimen hau. Izan ere, egoera errotik aldatzeko neurriak hartzetik urrun emakumeongan jarri zuten berriro fokua, erasotuak ez izateko neurrien zerrenda bat zabalduz.

Gaurko agerraldi honi eta ekintzaren inguruan gertatutakoaren berri emateari garrantzia eman nahi diogu, izan ere, ez dugu ikusten egoera aldatu denik, eta, beraz, honen aurrean tinko mantentzea dagokigu oraindik ere. Azpimarratu nahiko genuke, aurretik aipatutako Ertzaintzaren «erasoak saihesteko aholku» lotsagarriez gain, bestelako jarrera desegokiak izan zituztela egunean bertan bertaratutako agenteek. Besteak beste, zubitik zintzilikatuta zeuden bi emakumeak eusten zituen sokaren azpitik jendeari pasatzen utzi zioten Bilboko Gazte Sare Feministako kideek arriskutsua zela ohartarazita ere; gainera, bi emakume hauetako bat Zubira berriro igotzean, laguntzera eta egoera lasaitzera gerturatu zen kide baten aurka oldartu ziren; edo «qué bien, a la siguiente por el puente de La Salve, que va a ser más divertido» bezalako komentarioak izan zituzten; eta abar luze bat. Horrela, ekimena bukatutzat eman genuen 20 bat identifikatu inguru eta 8 inputaturekin.

Gabon hauetan, eta ez presezki Mari Domingiren eskuak, isunak heldu zaizkigu sareko 8 kideri. Bide penaletik eramatzen saiatu ziren arren, ez da delitu juridikorik ikusi, beraz, isuna administratiboa da. Baino honi ekimen politikoak desagertarazi eta gu itotzeko erabiltzen den Mozal Legea gehitzen badiogu, politikoki zein juridikoki onartezina iruditzen zaigun isuna geratzen zaigu, 6.500€ hain zuzen ere. Horrela, agerraldi hau isunei aurre egiteko martxan jarriko dugun kanpaina zabaltzeko baliatu nahi dugu ere. Marrabila artistak ilustrazio bat oparitu digu bono laguntzak ateratzeko, eta laster auzoetako puntu desberdinietan nahiz sareko kideei eskatuz eskuratu ahalko dira.

Hala ere, eta bukatzeko, gauza bat argi daukagu: berriro egingo genuke. Egiturazko biolentzia honen aurrean egunerokotasunean autodefentsa feministaz baliatzen garen bezala, erantzuna ekintza zuzenaren bitartez gauzatzea ere guztiz legitimoa dela pentsatzen jarraitzen dugu, eta horrela izango da egoera behetik gora aldatu arte. Guk, neurri paternalistetatik askoz haratago doazen neurrien beharra azpimarratzen jarraitzen dugu, pairatzen dugun sistema heteropatriarkal, kapitalista eta kolonial honen oinarriak astinduko dituzten neurriak. Ordura arte kalean ikusiko dugu elkar.

Gora borroka feminista eta gora bilboko gazte sare feminista!

<https://eh.lahaine.org/feministas-multadas-con-6500e-por>